

Egiazta itzazu merkatuari buruz
dituzun ezagupenak

3 tresna

Enpresa martxan jarri baino lehen galdera horiek guztiak erantzuteko gai izan beharko genuke baina orain gerta daiteke horrela ez izatea. Hori bada zure kasua, hurrengo puntua interesatzen zaizu.

BEZEROA

- Zein faktorek egiten dute bezero batzuen eta besteen jarrera desberdina izatea? (adina, sexua, erosteko ahalmena, familiaren osaketa...)
- Zein bezero talde da erakargarriena? Non daude? Non egiten dituzte erosketak? Nola irits naiteke haiengana?
- Zer balioztatzen du bezero talde horrek erosteko erabakia hartzeko garaian? (prezioa, marka, diseinua, entrega-epea, erosi ondorengo zerbitzua...)
- Nork hartzen du erosteko erabakia? Gure produktua kontsumituko duen pertsona bera da, ala beste bat?
- Banakako eroslea da, ala taldekakoa (enpresa, auzo komunitatea, elkartea...)?

LEHIA

- Hiru lehiakide zuzen identifikatzeko gai al gara? Eta hiru ez direnak zuzenak?
- Zein motako produktu edo zerbitzua eskaintzen dute? Estandarra da ala desberdintasun mailaren bat badu?
- Zein da erabiltzen duten politika prezioari, komunikazioari eta banaketari dagokionez?
- Zein dira lehiakideen indarrak? Eta ahuleziak?
- Lehiakideetakoren batek lidergo posizioa du? Lehiarako zer abantaila ematen dio posizio horrek?

SEKTOREA

- Zein dira sektorean sartzeko oztoporik garrantzitsuenak? (ekonomikoa, titulazioa edo lizentzia lortzea, banaketa bideetan sartzea...)
- Bezeroen boterea. Gure fakturazio guztia bezero gutxi batzuen araberakoa izango da ala talde handi batean banatua egongo da?
- Hornitzaileen boterea. Nahiko hornitzaile daude hornidura ziurtatzeko edo gutxi batzuk dira merkatua kontrolatzen dutenak?
- Gure merkatua ordezkatu dezaten ordezko produktu edo zerbitzuak ba al daude?
- Ba al dago sektorea arautzen duen araudi edo legerik? Hala bada, araudi horrek ondorio positibo edo negatiboak ditu?

INGURUNEA

- Ba al dago gure enpresari eragiten dioten gizarteko, politikako, ekonomiako edo bilakaera teknologikoko faktorerik? Daudenek zein motako eragina dute? Positiboa edo negatiboa?